

Proiektuaren deskribapena

CIFP Tartangako administraritzako ikasleak gara. Startinnova sarearen bitartez gure etorkizuneko proiektu profesional posiblea aurkeztuko dizuegu.



Gaur egun diskoteketarako sarrerak saltzeko erabiltzen den metodoa oso sinplea denez eta zailtasun asko dituenez, sarrera horiek saltzeko aplikazio informatiko bat sortu dugu.

Antzeman dugu jende asko diskoteketara joaten dela eta arazo asko daudela sarrerak erosteko momentuan, haien metodoa Harreman publikoko pertsonekin lotuta dagoelako (HHPP) eta metodo hori zahartuta dagoela uste dugu.

Uste dugu teknologia guztion etorkizuna dela gure bizitza asko errazten duelako. Beraz, gure aplikazioaren bidez teknologia diskoteken munduan sartzeko aukera izango dugu. Bertan beste hainbat funtzio desberdin eta erabilgarri egongo dira.

Ezin dugu ahaztu festetara eta diskoteketara joaten den jende kopurua oso altua dela eta haiek ere haien arazoak dituztela.